

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Tokiko komunitate energetikoetan parte hartuz energia berriztagarriak sustatzeko laguntzen deialdia egiten duen 2025eko urriaren 14ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 866924.

Bat etorritik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/866924>.

Deialdiaren xedea

Arautzea Donemiliagako Udaleko kontzejuetako eguzki energia fotovoltaiakoko instalazioak komunitate energetikoetan parte hartzeko eta erabilera sustatzeko zuzeneko deialdi kanonikoaren araubideko dirulaguntzak ematea.

Eguzki energia fotovoltaiakoko instalazioak sustatu nahi dira Komunitate energetikoetan, bizitegi autokontsumoaren sustapenean eta energiaren tokiko eta erkidegoko kudeaketan parte hartzea diruz lagunduz.

Onuradunak

Dirulaguntza hauek indarrean dagoen partidaren kargura jasoko dituzte Donemiliagako beren ohiko etxebizitzetan erroldatuta dauden auzotarrek, baldin eta dirulaguntza argitaratzen den unean Donemiliagako udalerriko komunitate energetikoetako bateko kide badira eta komunitate horretan gutxienez 5 urtez jarraitzeko konpromisoa hartzen badute.

Auzotar bakoitzak dirulaguntza erroldatuta dagoen helbiderako baino ezin izango du eskatu, dirulaguntza bakarra herriko etxe bakoitzeko eta/edo jardueraren helbide bakoitzeko.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2025eko urriaren 14an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 425 780 000 partidari egotziko zaio, 20.000,00 euroko zenbatekoarekin.

Eskaerak aurkezteko epea

Aurkezteko epea urte osoan egongo da irekita.

Erdoñana, 2025eko azaroaren 5a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO